

521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren edo bere eranskinen zenbat eduki aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Zerga iruzurra eragozteko helburu duten tresna teknologikoak erabiltzeko obligazioa ezartzen duen azaroaren 6ko 3/2020 Foru Araua dela medio –sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauak aldatuz ezarri da obligazio hori–, zergadunak behartuta geratu dira fakturazio sistemetan neurri teknologiko aurreratuak erabiltzera tresna teknologiko berriak baliatuta, eta horrek jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen tributazioa kontrolatzea ahalbidetuko du, haien tamaina edo eragiketa bolumena edozein dela ere.

Bere artikuluetan zehar, aipatutako foru arauak hainbat gai uzten ditu erregelamenduz garatzeko, eta zeregin hori abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretua dela medio gauzatu da. Dekretu horrek TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten du.

Erregelamendu horretan ezartzen da TicketBAI softwareak bete behar dituen zehaztapen tekniko eta funtzionalak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsiko dituela foru agindu bidez.

Hori aintzat hartuta, foru agindu honen lehen sekzioan jasotzen dira TicketBAI softwarearen ezaugarriak eta haren zehaztapen tekniko eta funtzionalak. Haien edukia aginduari erantsitako bost eranskinetan zehar banatzen da, era honetan: I. eta II. eranskinetan TicketBAI altako eta baliogabetze fitxategien egitura eta balidazioak zehazten dira, hurrenez hurren; III. eranskinean TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak biltzen dira; IV. eranskinak TicketBAI fitxategiak bidaltzeko zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta igorpenaren baldintzak ezartzen ditu; eta, azkenik, V. eranskinak ondasun entregaren edo zerbitzu prestazioen faktura edo frogagirietan agertu behar duten identifikazio kodearen eta QR kodearen zehaztasunak ezartzen ditu.

Bigarren sekzioan, TicketBAI Erregistroan alta emateko aitortenaren edukia eta hura aurkezteko modua ezartzen dira. Aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, bertan eskura jarriko den formularioa betez.

Bestalde, xedapen gehigarri bakarrak ezartzen du TicketBAI betebeharra betetzearekin lotutako tramite eta komunikazio guztietan baliabide elektronikoen bidez izan behar direla harremanak zerga Administrazioarekin.

Bukaeran, ezartzen da foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin; dena den, TicketBAI betebeharra borondatez betetzea aukeratzen dutenen kasuan, agindu hau 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko zaie.

TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduan araututakoa betetze aldera, egoki da TicketBAI betebeharra garatzen duten zehaztapen tekniko eta funtzionalak onestea.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, aipatzen duen TicketBAI softwareak eta haren fitxategiek bete behar dituzten ezaugarriak eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak zehaztea da foru agindu honen xedea.

Orobat, foru agindu honen bitartez, erregelamendu horretako VI. artikuluan aipatzen den TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortenaren edukia eta aurkezpen modua ezartzen dira.

Azkenik, foru agindu honek TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ere garatzen ditu, aipatutako erregelamenduan jada aurreikusiak.¹

2. artikulua. Definizioak.

1. Foru agindu honetan erabiltzen diren terminoak TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 3. artikuluan jasotzen dituen definizioekin bat ulertuko dira.

2. Gainera, foru agindu honen ondorioetarako, kontzeptu hauek bereiziko dira:

a) Sinaduraren ziurtagiria: TicketBAI fitxategia sinatzen duenaren identitatea egiaztatzeko balio duen agiri elektronikoa, Ziurtapen Agintaritza batek emana.

¹ Paragrafo hau ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 2. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Aipatutako foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2022/06/17ko GAO).

b) Igorpenaren ziurtagiria: TicketBAI fitxategia bidaltzen duenaren identitatea egiaztatzeko balio duen agiri elektronikoa, Ziurtapen Agintaritza batek emana.

Lehen sekzioa. TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak.

3. artikulua. TicketBAI altako fitxategia.

TicketBAI altako fitxategiak TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 11. artikuluan aipatzen duen informazioa jaso behar du, foru agindu honen I. eranskinean horrelako fitxategietarako ezarritako egitura, edukia eta ezaugarriak betez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa zehaztutako formatu eta diseinuari jarraituz.

Kodetzea UTF-8 izango da.

4. artikulua. TicketBAI baliogabetze fitxategia.

Faktura edo frogagiri bat baliogabetu behar den kasuetarako, beharrezkoa da TicketBAI baliogabetze fitxategi bat sortzea, eta haren barruan jasotzea TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 12. artikuluan aipatzen duen informazioa, foru agindu honen II. eranskinean TicketBAI baliogabetze fitxategietarako ezarritako egitura, edukia eta ezaugarriak betez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa zehaztutako formatu eta diseinuari jarraituz.

Kodetzea UTF-8 izango da.

5. artikulua. TicketBAI fitxategiak elektronikoki sinatzea.

TicketBAI altako eta baliogabetze fitxategiak elektronikoki sinatu behar dira, foru agindu honen III. eranskinean sinadura elektronikoki buruz jasotzen diren zehaztapenei jarraituz.

6. artikulua. TicketBAI fitxategiak igortzea.

TicketBAI altako eta baliogabetze fitxategiak zerga Administrazioari igorri behar zaizkio, foru agindu honen IV. eranskinean jasotzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalen arabera eta bertan ezartzen diren baldintzak betez.

7. artikulua. TicketBAI identifikatzailea eta QR kodea.

Ondasun entregan edo zerbitzu prestazioen fakturak edo frogagiriak TicketBAI softwareen bidez sortzen badira, TicketBAI identifikatzaile bat eta QR kode bat eraman behar dituzte, eta horiek sortzeko foru agindu honen V. eranskinean ezarritako zehaztapen tekniko eta funtzionalei jarraituko zaie.

8. artikulua. TicketBAI softwarea presentzialki egiaztatzeko funtzionalitatea.

TicketBAI softwareak aukera eman behar du TicketBAI sistema presentzialki egiaztatzeko. Horretarako, informazio hau erakutsi beharko du fakturazio gailuaren pantaila bakar batean:

a) Fakturazio gailutik erabiltzen den TicketBAI softwarea garatu duenaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapena.

- b) Fakturazio gailutik erabiltzen den TicketBAI softwarearen izena.
- c) Fakturazio gailutik erabiltzen den TicketBAI softwarearen bertsioa.

Nahi bada, aurreko informazioa emateko erabiltzen den gailuaren serie zenbakia ere erakutsi daiteke.

9. artikulua. TicketBAI softwarearen beharkizun gehigarriak mahaigaineko aplikazioa denean.

1. TicketBAI softwarea mahaigaineko aplikazio bat bada TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 3. artikuluan jasotakoaren arabera, beharkizun gehigarri hauek bete beharko dira:

- a) TicketBAI softwarearen sinadura elektronikoa.
- b) TicketBAI softwarearen bertsio desberdinak gorde beharra.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren beharkizun gehigarriak ez zaizkio TicketBAI softwareari exijituko arkitektura banatuko aplikazioa denean TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. TicketBAI softwarea aurreko 1. apartatuko a) letran aipatu den mahaigaineko aplikazioa bada, sinadura elektronikoari buruzko beharkizun gehigarriak honako hau ekarriko du berekin:

a) TicketBAI softwarea banatzeko erabiltzen den artxibo instalagarria pertsona edo entitate garatzaileak sinatu behar du modu elektronikoan, ziurtapen entitate onartu batek emandako kodea sinatzeko ziurtagiri elektronikoa erabiliz. Ziurtagirian erakusten den informazioak egilearen identitatea bermatu behar du eta softwarearen osotasuna ziurtatu.

b) TicketBAI softwarea mahaigaineko aplikazio bat bada, hura instalatzeko erabiltzailearen baimena beharko da.

c) TicketBAI softwarea abian jartzeko erabiltzen den artxibo informatiko exekutagarria pertsona edo entitate garatzaileak sinatu behar du modu elektronikoan, ziurtapen entitate onartu batek emandako kodea sinatzeko ziurtagiri elektronikoa erabiliz.

4. Mahaigaineko aplikazioa den kasuetan TicketBAI softwarearen bertsio desberdinak gordetzeari buruz ezarritako beharkizun gehigarriak, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatuak, esan nahi du pertsona edo entitate garatzailea bere erabiltzaileei banatu dien TicketBAI softwarearen bertsio guztiak gordetzera behartuta dagoela.

5. Bai mahaigaineko aplikaziotzat hartzen den TicketBAI softwareak, bai arkitektura banatuko aplikaziotzat hartzen denak, kode baten bidez identifikatu beharko dituzte beren bertsioak. Kode hori «softwarearen bertsioa» eremuan agertuko da, fakturei alta emateko zein haiek baliogabetzeko TicketBAI softwarearekin sortzen diren fitxategietan.

Bigarren sekzioa. TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena.

10. artikulua. TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena.

1. Alta aitorpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da, zergadunen esku jarriko den formularioa betez. Formulario horrek informazio hau jaso beharko du gutxienez:

- a) TicketBAI softwarea garatu duenaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapena.
- b) TicketBAI softwarearen izena.
- c) TicketBAI softwarearen deskribapena edo informazio esanguratsua.
- d) Softwarea garatu duenaren webgunearen URLa, halakorik bada.
- e) Softwarea euskaraz lan egiteko prestatuta dagoen.
- f) TicketBAI softwarea pertsona edo entitate eskatzaileak eta hari lotutako pertsona fisikoek edo entitateek soilik erabiliko duten.

Kasu horretan, adierazi ahal izango da ez dela nahi TicketBAi softwarea Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean argitaratzen den zerrendan agertzea (TicketBAI softwareen zerrendan).

2. Alta aitorpenaren aurkezpen telematikoa TicketBAI softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak egin dezake, edo haren ordezkari gisa jarduten duen hirugarren batek, ordezkaritza hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 46. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten bada.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den formularioarekin batera, pertsona edo entitate garatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du, eta bertan honako hauek adierazi:

- a) Inskribatzeko eskatzen den softwareak betetzen dituela bai 122 bis eta 112 bis artikuluetako 1. apartatuan xedatutakoa, bai TicketBAI betebeharra garatzen duen erregelamenduan jasotakoa, bai foru agindu honetan onartutako zehaztapen tekniko eta funtzionalak. Horretarako erabili diren prozedura teknikoen deskribapen memoria laburra ere erantsiko da.
- b) Bere burua behartzen duela aurreko a) letran aipatutako beharkizunak eta baldintzak betetzen jarraitzera softwarea erregistroan inskribatuta dagoen bitartean, eta beharkizun eta baldintza horietan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko konpromisoa hartzen duela.

4. Alta aitorpenari aurreko apartatuko a) letran aipatu den deskribapen memoria erantsi beharko zaio, eta bertan honako hauek adieraziko dira:

- a) Software mota: mahaigaineko aplikazioa eta/edo arkitektura banatuko aplikazioa.
- b) TicketBAI altako fitxategiak kateatzeko prozesua.
- c) Fakturei alta emateko zein haiek baliogabetzeko TicketBAI fitxategiak sinatzeko prozesua, eta, bereziki, TicketBAI softwareak sinatzeko prozesuan erabil ditzakeen ziurtagiri elektronikoak.
- d) Softwareak sortzen dituen faktura edo frogagiri motak. Bereziki, softwareak honako hauek sortzen dituen adieraziko da:

- Faktura sinplifikatuak edo/eta osoak.

- Paperezko fakturak eta/edo faktura elektronikoak.

e) TicketBAI identifikatzailearen eta QR kodearen kokapena, foru agindu honen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Foru agindu honen 8. artikuluan aipatutako informazioa pantaila bakar batean eta presentzialki egiaztatzeko softwareak duen aukeraren identifikazioa.

g) TicketBAI altako eta baliogabetze fitxategiak biltegitratzeko sistema.

Hirugarren sekzioa. TicketBAI fitxategiak bidaltzeko modu bereziak.²

11. artikulua. TicketBAI fitxategiak modu geroratuan bidaltzea estaldurarik ez dagoela eta sarerako sarbiderik ezin dela lortu frogatzen den kasuetan.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa izango da Estrategia Teknologikoko Zuzendariordetza Nagusiak, zergadunak aurrez eskatuta, TicketBAI fitxategiak modu geroratuan bidaltzea baimendu duenean, estaldurarik ez egoteagatik eta sarerako sarbiderik ezin lortzeagatik, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 14.4 artikuluan aurreikusi bezala.

Bidalketa geroratu hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, TicketBAI fitxategien inportazioa dela medio.

Hilabete natural bakoitzari dagozkion TicketBAI fitxategien bidalketa geroratua hurrengo hilaren 15a baino lehen egin beharko da.

Aldiz, uztailleko TicketBAI fitxategiak irailaren 15a baino lehen bidaliko dira modu geroratuan.

12. artikulua. TicketBAI fitxategiak bidaltzeko kasu berezia, TicketBAI betebeharra eragiketaren hartzaileak betetzen duenean.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da TicketBAI betebeharra eragiketaren hartzaileak betetzen duenean eta TicketBAI fitxategiak jaulkitzaileak berak bidaltzen dituenean faktura onartu bezain laster, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 15.2 artikuluko b) letran xedatzen duen bezala.

Bidalketa hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, TicketBAI fitxategien inportazioa dela medio.

Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 36. artikuluko 5. apartatuan aipatzen

² Sekzio hau ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 2. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Aipatutako foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2022/06/17ko GAO).

dituen jaulkitzaileen kasuan, TicketBAI fitxategiak faktura egin eta gehienez 8 egun naturaleko epean bidali beharko dira.

Xedapen gehigarri bakarra.

TicketBAI betebeharra duten zergadunek bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzte betebeharrak horretatik ondorioztatzen diren tramite eta komunikazio guztiak, betiere foru agindu honetan eta TicketBAI betebeharra arautzen duen gainerako araudi espezifikokoan xedatutakoari jarraituz.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatzen diren zergadunek bitarteko elektronikoen bidez jaso beharko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, TicketBAI betebeharrarekin lotuta, egiten dituen komunikazioak eta jakinarazpenak.

Xedapen iragankor bakarra. Sinadura elektronikoaren zehaztapenen araubide iragankorra.³

Gipuzkoako Foru Ogasunera bidalitako TicketBAI fitxategiak elektronikoki sinatu badira foru agindu honetako III. eranskinean sinadura elektronikoari buruz jasotzen diren zehaztapenak kontuan hartuta –«TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak» deitutako eranskina, TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen 16/2022 Foru Aginduak eranskin horretan sartutako aldaketa indarrean jartzeko datan duen idazkeran–, beren balio eta ondorio guztiak gordeko dituzte.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, betiere eragotzi gabe iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duen azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak xedapen iragankor bakarrean xedatutakoa, eta abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duenak, lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan jasotakoa.

³ Xedapen iragankor hau urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduaren azkenetako xedapen lehenaren bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen ditu. Aipatutako foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2022/01/24ko GAO) eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *53/2021 Foru Agindua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baita TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua (2021/02/23ko GAO).*
 - Bere artikulua bakarrak I. eta V. eranskinak ordezkatzeko dituen foru agindu berberak I. eta V. ageri diren eranskinak ezarri.
- *16/2022 Foru agindua, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez arautzen baitira TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak (2022/01/24ko GAO).*
 - Bere azken xedapenetako lehenak xedapen iragankor bat gehitzen dio eta bere III. eta IV eranskinen edukia aldatzen ditu foru agindu honen II. eta III. eranskinen edukiekin ordeztuz. III. eranskin hori urtarrilaren 25eko 40/2022 Foru Aginduaren bidez aldatu zen. Agindu horrek TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduaren I. eta III eranskinak ordezkatzeko ditu.
- *330/2022 Foru agindua, ekainaren 14koa, TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimentuan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen dituen (2022/06/17ko GAO).*
 - 2. artikulua ondorengo prezeptoak aldatu ditu:
 - Bat apartatuak 1. artikulua.
 - Bi apartatuak hirugarren sekzio bat gehitzen du.
 - Hiru apartatuak «TicketBAI alta fitxategien egitura eta balioztapenak» izena duen I. eranskineko I. apartatuan (altako mezuen erregistro eremuak eta zehaztapen funtzionalak) ageri den eremu bat.
 - Lau apartatuak «TicketBAI alta fitxategien egitura eta balioztapenak» izena duen I. eranskineko II. apartatuaren barruan (Zerrenda motako eremuetan baimendutako gakoak eta balioak) bi eremu gehitzen zaizkio L9 blokeari (BEZaren eta zerga garrantzia duten eragiketen araubide bereziko gakoak).



- 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituen (2023/08/21ko GAO).
 - Bere artikuluko bakarrik aldaketak hauek sartzen ditu:
 - I. eranskinaren I. eta II. apartatuetan aldaketak sartzen ditu.
- 415/2023 Foru Agindua, urriaren 4koa, bi foru agindu hauek aldatzen dituen: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituen, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituen (2023/10/13ko GAO)(Akats zuzenketa 2023/10/20ko GAO).
 - Bere 1. artikuluko edukia hauek aldatzen ditu I. eranskinaren:
 - I. apartatua (altako mezuen erregistro eremuak eta zehaztapen funtzionalak), «Fakturaren Banakapena» datuaren barruan ageri diren «Lotugabearen Xehetasuna» eta «BEZaren Xehetasuna» eremuak.
 - I. apartatua (altako mezuen erregistro eremuak eta zehaztapen funtzionalak), entregari dagokion «Eragiketa Motaren Xehetasuna» datuaren barruan ageri diren «Lotugabearen Xehetasuna» eta «BEZaren Xehetasuna» eremuak.
 - I. apartatua (altako mezuen erregistro eremuak eta zehaztapen funtzionalak) «Deskontua» datuan ageri den «Deskribapena» eremua.
 - Bere 2. artikuluko abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren azken xedapenetako bigarrenaren lehen paragrafoa berridazten da. Aipatutako foru aginduak abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen du.

I. Eranskina:¹ TICKETBAI ERAGIKETEN ALTA FITXATEGIAREN EGITURA ETA BALIOZKOTZEAK.

I. ALTAKO MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

Azalpena:	Gorritz =	Nahitaezko eremuak
	Beltzez =	Aukerako eremuak
		Eremu baztertzailak
		Nahitazkoak Gipuzkoan

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Goiburua	TBAI bertsioaren identifikatzailea								Alfanumerikoa(5)	Erabilgaitako TicketBAI egitura fitxategiaren bertsioaren identifikazioa.	L0
Subjektuak	Jaulkitzailea	IFZ							IFZen formatua(9)	Jaulkitzailearen IFZ.	
		Abizenak eta izena edo sozietate izena							Alfanumerikoa (120)	Jaulkitzailearen izen-abizenak, edo sozietate izena edo izendapen sozial osoa.	
	Hartzaileak	Hartzailearen identifikazioa (1 - 100)	IFZ						IFZen formatua(9)	Hartzailearen IFZ.	
			Bestelako identifikazioa	Herrialdearen kodea					Alfanumerikoa(2)	Hartzailearen herrialdearen kodea.	(ISO 3166-1 Alpha-2 codes) L1
				Identifikazio mota					Alfanumerikoa(2)	Hartzailea bizi den herrialdean identifikazio mota ezartzeko gakoa.	L2
				Identifikazioa					Alfanumerikoa(20)	Bizi den herrialdeko identifikazio zenbakia.	
				Abizenak eta izena edo sozietate izena					Alfanumerikoa(120)	Hartzailearen izen-abizenak, edo sozietate izena edo izendapen sozial osoa.	
				Posta kodea					Alfanumerikoa(20)	Hartzailearen posta kodea.	
				Helbidea					Alfanumerikoa(250)	Hartzailearen posta helbidea.	
	Hainbat hartzaile								Alfanumerikoa(1)	Fakturak hartzaile bat baino gehiago ote duen zehazten duen identifikatzailea. Eremu hori adierazten ez bada, «N» balioa duela ulertuko da.	L3
	Hirugarrenak edo hartzaileak egindako faktura								Alfanumerikoa(1)	Faktura hirugarren batek edo hartzaileak jaulki duen zehazten duen identifikatzailea. Eremu hori adierazten ez bada, «N» balioa duela ulertuko da.	L4

¹ Eranskin hau otsailaren 8ko 53/2021 Foru Aginduen artikulua bakarrez aldatu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2021/02/23ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak, betiere eragotzi gabe zer jasotzen duten iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duen azaroaren 6ko 3/2020 foru arauak xedapen gehigarri bakarrez eta ticketBai betebeharra garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 22ko 32/2020 foru Dekretuak lehen eta bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa.

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Faktura		Faktura seriea							Alfanumerikoa(20)	Faktura identifikatzen duen seriea. Karaktere sorta hau erabiltzea gomendatzen da: 0123456789ABCDEFGHIJKLMNPQRSTUVWXYZ. Irakurgarritasuna hobetzeko I, Ñ, O eta W letrak saihestea. Letra xeherik ez erabiltzea. Karaktere bakarra erabiltzea zuriuneak adierazteko. Testua ezkerrera doitu, hutsuneekin hasi gabe. Azenturik ez erabiltzea. "-" gidoi ertaina erabil daiteke.	
Faktura	Fakturaren goiburua	Faktura zenbakia							Alfanumerikoa(20)	Faktura identifikatzen duen faktura zenbakia. Gomendatzen da: Faktura zenbakiak zenbakizko karaktereak baino ez lituzke izan behar. Ez da zuriuneekin hasi behar (beraz, testua ezkeretik lerrokatuta).	
		Fakturaren jaulkipen data							Data formatua(10)	Faktura egin den eguna.	(ee-hh-uuuu)
		Fakturaren jaulkipen ordua							Ordu formatua(8)	Faktura egin den ordua.	(oo:mm:ss)
		Faktura sinplifikatua							Alfanumerikoa(1)	Faktura sinplifikatuaren edo faktura osoa den zehazten duen identifikatzailea. Eredu hori adierazten ez bada, «N» balioa duela ulertuko da, eta faktura osoa dela ulertuko da.	L5
		Faktura sinplifikatuaren ordezkari egindako faktura							Alfanumerikoa(1)	Faktura sinplifikatuaren ordezkari egindako faktura ote den zehazten duen identifikatzailea. Eredu hori adierazten ez bada, «N» balioa duela ulertuko da.	L6
		Faktura zuzentzailea	Kodea						Alfanumerikoa(2)	Faktura zuzentzailearen mota identifikatzen duen kodea.	L7
			Mota						Alfanumerikoa(1)	Faktura zuzentzailea ordezkari nagatik edo desberdintasunengatik den identifikatzen du.	L8
			Ordezko zuzenketaren zenbatekoa	Zuzendutako oinarria					Dezimala(12,2)	Ordezkatutako fakturaren zerga oinarria.	
				Zuzendutako kuota					Dezimala(12,2)	Ordezkatutako fakturaren jasanarazitako kuota.	
				Zuzendutako errekararen kuota					Dezimala(12,2)	Ordezkatutako fakturaren baliokidetasun errekararen kuota.	
		Zuzendu edo ordezkariutako fakturak	Zuzendu edo ordezkariutako fakturen identifikatzailea (1 - 100)	Fakturaren seriea					Alfanumerikoa(20)	Zuzendutako edo ordezkariutako faktura identifikatzen duen serie zenbakia.	
				Fakturaren zenbakia					Alfanumerikoa(20)	Zuzendutako edo ordezkariutako faktura identifikatzen duen faktura zenbakia.	
				Fakturaren jaulkipen data					Data formatua(10)	Zuzendutako edo ordezkariutako faktura egin den eguna.	(ee-hh-uuuu)
	Fakturaren datuak	Eragiketa data							Data formatua(10)	Fakturaren eragiketa data, baldin eta jaulkitze dataren ezberdina bada.	(ee-hh-uuuu)
		Fakturaren azalpena							Alfanumerikoa(250)	Eragiketen deskribapen orokorra.	
		Fakturaren xehetasunak		Xehetasun azalpena					Alfanumerikoa(250)	Faktura erroaren xehetasun azalpena.	

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
		Fakturaren xehetasunen IDa (1etik 1000ra)	Kopurua						Dezimala(12,8) ²	Faktura lerroaren kopurua.	
			Unitateko zenbatekoa						Dezimala(12,8)	Faktura lerroaren zenbateko unitarioa, BEZik gabe.	
			Deskontua						Dezimala(12,8) ³	Faktura lerroaren deskontuaren zenbatekoa eurotan, BEZik gabe. ⁴	
			Zenbateko osoa						Dezimala(12,8) ⁵	Faktura lerroaren zenbateko osoa, BEZa barne.	
		Fakturaren zenbatekoa guztira							Dezimala(12,2)	Fakturaren zenbateko osoa.	
		Jasandako atxikipena							Dezimala(12,2)	Jasandako atxikipena.	
		Kostuaren zerga oinarria							Dezimala(12,2)	Kosturako zerga oinarria (BEZ taldeetarako – maila aurreratua).	
Faktura	Banakapen mota	Gakoak	Gakoaren identifikatzailea (1 - 3)	BEZaren erregimena edo zerga garrantzia duen eragiketa					Alfanumerikoa(2)	BEZaren erregimen mota edo zerga garrantzia duen eragiketa bat identifikatzeko gakoa.	L9
		Fakturaren banakapena (kontrapartea "nazionala" denean edo kontraparterik ez dagoenean)	Zergari lotua	Salbuetsia	Salbuetsiaren xehetasuna (1 – 7, salbuespenaren ondoriozko datu multzoa)	Salbuetsitako en arrazoia			Alfanumerikoa(2)	Salbuespenaren arrazoia.	L10
					Salbuetsitako zerga oinarria				Dezimala(12,2)	Salbuespen arrazoiari dagokion zerga oinarri salbuetsia eurotan.	
				Salbuetsi gabea	Salbuetsi gabearen	Salbuetsi gabearen mota			Alfanumerikoa(2)	Lotuta eta salbuetsi gabe dagoen eragiketa mota.	L11

² Eremu hau ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Aipatutako foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2022/06/17ko GAO).

³ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduak (bi foru agindu hauek aldatzen dituenak: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuz.

⁴ Eremu hau urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduaren 1. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak bi foru agindu hauek aldatzen ditu: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. Aldaketa 2024ko urtarrilaren 1ean sartzen da indarrean (2023/10/13ko GAO).

⁵ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduak (bi foru agindu hauek aldatzen dituenak: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuz.

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa		Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena		Balio posibleak
					xehetasuna (1 - 2)	BEZaren banakapena	BEZaren xehetasuna (1etik -12ra, datu multzo bat mota bakoitzeko) ⁶	Zerga oinarria	Dezimala(12,2)	Zerga oinarria ez dago salbuetsita. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatzen zaio.		
								Zerga tasa	Dezimala(3,2)	Kuota kalkulatzeko zerga oinarriari aplikatutako ehunekoa.		
								Zergaren kuota	Dezimala(12,2)	Jasanarazitako kuota. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatuta ateratzen den kuota izango da.		
								Baliokidetasun errekguaren tasa	Dezimala(3,2)	BEZaren tasaren arabera lotutako ehunekoa.		
								Baliokidetasun errekguaren kuota	Dezimala(12,2)	Zerga oinarriari baliokidetasun errekguaren tasa aplikatuta ateratzen den kuota.		
								Baliokidetasun errekgua edo araubide sinplifikatua aplikatzen zaion eragiketa	Alfanumerikoa(1)	Zergadunak egindako faktura araubide sinplifikatuan edo baliokidetasun errekguaren araubidean eginda dagoen zehazten duen identifikadorea. Eremua ez bada betetzen «N» balioa duela ulertuko da.	L12	
								Banakapen mota	Eragiketa motaren banakapena (kontrapartea ez-nazionala denean)	Zerbitzu prestazioa	Lotua	Zergari lotu gabea
	Zenbatekoa			Dezimala(12,2)	Karga gabeko eragiketari dagokion zenbatekoa eurotan.							
	Salbuetsia	Salbuetsiaren xehetasuna (1 – 7, salbuespenaren ondoriozko datu multzoa)	Salbuetsitako arrazoa			Alfanumerikoa(2)	Salbuespenaren arrazoa.					L10
			Salbuetsitako zerga oinarria			Dezimala(12,2)	Salbuespen arrazoiari dagokion zerga oinarri salbuetsia eurotan.					
	Salbuetsi gabea	Salbuetsi gabearen xehetasuna (1etik 2ra)	Salbuetsi gabearen mota			Alfanumerikoa(2)	Zergari lotuta eta salbuetsi gabe dagoen eragiketa mota.					L11
			BEZaren banakapena	Zerga oinarria	Dezimala(12,2)	Zerga oinarria ez dago salbuetsita. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatzen zaio.						
				Zerga tasa	Dezimala(3,2)	Kuota kalkulatzeko zerga oinarriari aplikatutako ehunekoa.						
				Zerga kuota	Dezimala(12,2)	Jasanarazitako kuota. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatuta ateratzen den kuota izango da.						
							Baliokidetasun errekguaren tasa	Dezimala(3,2)	BEZaren tasaren arabera lotutako ehunekoa.			

⁶ Eremu hau urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduaren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak bi foru agindu hauek aldatzen ditu: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen. Aldaketa 2024ko urtarilaren 1ean sartzen da indarrean (2023/10/13ko GAO).

⁷ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren artikuluko bakarreko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduak (bi foru agindu hauek aldatzen dituen: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarilaren 1ean indarrean sartuz.

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa		Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
Faktura									Baliokidetasun errekguaren kuota	Dezimala(12,2)	Zerga oinarriari baliokidetasun errekguaren tasa aplikatzearen ondoriozko kuota.	
									Baliokidetasun Errekgua edo araubide sinplifikatua aplikatzen zaion eragiketa	Alfanumerikoa(1)	Identifikatzailea, zergadun batek erregimen sinplifikatuan edo baliokidetasun errekguko erregimenean egindako faktura den zehazten duena. Eremu hori adierazten ez bada, «N» balioa duela ulertuko da.	L12
				Lotu gabea	Lotu gabearen xehetasuna (1 - 4) ⁸	Arrazoa				Alfanumerikoa(2)	Zergari ez lotzeko arrazoiak.	L13
			Ondasun entrega	Zergari lotua	Salbuetsia	Salbuetsiaren xehetasuna (1 – 7, salbuespenaren ondoriozko datu multzoa)	Salbuetsitakoaren arrazoa			Alfanumerikoa(2)	Salbuespenaren arrazoa.	L10
							Salbuetsitako zerga oinarria			Dezimala(12,2)	Salbuespen arrazoiari dagokion zerga oinarri salbuetsia eurotan.	
				Zergari lotua	Salbuetsi gabea	Salbuetsi gabearen xehetasuna (1 - 2)	Salbuetsi gabearen mota			Alfanumerikoa(2)	Zergari lotuta eta salbuetsi gabe dagoen eragiketa mota.	L11
							BEZaren banakapena	BEZaren xehetasuna (1 – 12, motaren araberrako datumultzoa) ⁹	Zerga oinarria	Dezimala(12,2)	Zerga oinarria ez dago salbuetsita. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatzen zaio.	
									Zerga tasa	Dezimala(3,2)	Kuota kalkulatzeko zerga oinarriari aplikatutako ehunekoa.	
									Zergaren kuota	Dezimala(12,2)	Jasanarazitako kuota. Zerga oinarriari zerga tasa aplikatuta ateratzen den kuota izango da.	
									Baliokidetasun errekguaren tasa	Dezimala(3,2)	BEZaren tasaren arabera lotutako ehunekoa.	
									Baliokidetasun errekguaren kuota	Dezimala(12,2)	Zerga oinarriari baliokidetasun errekgua aplikatuta ateratzen den kuota.	
									Baliokidetasun errekgudun edo erregimen sinplifikatuko eragiketa	Alfanumerikoa(1)	Zergadunak egindako faktura araubide sinplifikatuan edo baliokidetasun errekguaren araubidean eginda dagoen zehazten duen identifikadorea. Eremua ez bada betetzen, «N» balioa duela ulertuko da.	L12

⁸ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren artikuluko bakarrek 10 apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Agindua (bi foru agindu hauek aldatzen dituenak: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarilaren 1ean indarrean sartuz.

⁹ Eremu hau urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak bi foru agindu hauek aldatzen ditu: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. Aldaketa 2024ko urtarilaren 1ean sartzen da indarrean (2023/10/13ko GAO).

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa		Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
				Zergari lotu gabea	Lotu gaberen xehetasuna (1etik – 4ra) ¹⁰	Arrazoa				Alfanumerikoa(2)	Zergari lotuta ez egotearen arrazoa.	L13
						Zenbatekoa				Dezimala(12,2)	Lotu gabeko eragiketari dagokion zenbatekoa eurotan.	
TBAI Azterna	Aurreko faktura kateatzea	Aurreko fakturaren seriea								Alfanumerikoa(20)	Aurreko faktura identifikatzen duen seriea.	
		Aurreko fakturaren zenbakia								Alfanumerikoa(20)	Aurreko faktura identifikatzen duen faktura zenbakia.	
		Aurreko fakturaren jaulkipen data								Data formatua(10)	Aurreko faktura egin den eguna.	(ee-hh-uuuu)
		Aurreko fakturaren sinadura (SignatureValue)								Alfanumerikoa(100)	Aurreko fakturako TicketBAI fitxategiko SignatureValue eremuko lehen ehun karaktereak.	
	TicketBAI softwarea	TBAI lizentzia (izen ematearen alta zenbakia)								Alfanumerikoa(20)	Zerga Administrazioak TicketBAI softwarearen erregistroan esleitutako alta inskripzioaren zenbakia.	
		Pertsona edo entitate garatzailea	Beste batzuen identifikazioa	IFZ						IFZen formatua(9)	Pertsona edo entitate garatzailearen IFZ. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	
				Herrialdearen kodea						Alfanumerikoa(2)	Pertsona edo entitate garatzaileari lotutako herrialdearen kodea. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	(ISO 3166-1 alpha-2 codes) L1
				Identifikazio mota						Alfanumerikoa(2)	Bizi den herrialdeko identifikazio mota ezartzeko gakoa. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	L2
				Identifikazioa						Alfanumerikoa(20)	Bizi den herrialdeko identifikazio zenbakia. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	
		Izena								Alfanumerikoa(120)	TicketBAI softwarearen izena. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	
		Bertsioa								Alfanumerikoa(20)	Erabilitako TicketBAI softwarearen bertsioa identifikatzea.	
	Gailuaren serie zenbakia									Alfanumerikoa(30)	Erabilitako fakturazio gailuaren serie zenbakia.	
Signature											Ikusi "TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoa egiteko zehaztapenak" III. eranskinean.	

¹⁰ Eredu hau urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduen 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak bi foru agindu hauek aldatzen ditu: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. Aldaketa 2024ko urtarilaren 1ean sartzen da indarrean (2023/10/13ko GAO).

II. ZERREDA MOTAKO EREMUETAN BAIMENDUTAKO GAKO ETA BALIOAK.

L0 → TBAI bertsioaren identifikatzailea.

Balioak	Deskribapena
1.2	Erabilitako eskemaren egungo bertsioa.

L1 → Herrialdearen kodea.

Informazioa indarrean dagoen herrialde eta lurraldeen kode zerrendaren arabera emango da.

L2 → Bizilekuko herrialdeko identifikazio motak.

Balioak	Deskribapena
02	IFZ-BEZ.
03	Pasaportea.
04	Bizi den herrialdeak edo lurraldeak emandako identifikazio agiri ofiziala.
05	Bizileku ziurtagiria.
06	Beste frogak dokumentu bat.

L3 → Hainbat hartzaile.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.

L4 → Hirugarren batek edo hartzaile batek egindako faktura.

Balioak	Deskribapena
N	Jaulkitzaileak berak egindako faktura.
T	Hirugarrenak egindako faktura.
D	Eragiketaren hartzaileak egindako faktura.

L5 → Faktura sinplifikatua.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.

L6 → Faktura sinplifikatuaren ordezkari egindako faktura.

Balioak	Deskribapena
---------	--------------



S	Bai.
N	Ez.

L7 → Faktura zuzentzailearen kodea.

Balioak	Deskribapena
R1	Faktura zuzentzailea: zuzenbidean eta BEZaren Legearen 80.Bat, Bi eta Sei artikuluan oinarritutako akatsa.
R2	Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Hiru artikulua.
R3	Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Lau artikulua.
R4	Faktura zuzentzailea: gainerakoak.
R5	Faktura sinplifikatuak zuzentzeko faktura.

L8 → Faktura zuzentzaile mota.

Balioak	Deskribapena
S	Ordezkapenagatiko faktura zuzentzailea.
I	Diferentziengatiko faktura zuzentzailea.

L9 → BEZaren eta zerga garrantzia duten eragiketen erregimen bereziko gakoa.

Balioak	Deskribapena
01	Erregimen orokorreko eragiketa eta hurrengo balioetan jaso gabe dagoen beste edozein kasu.
02	Esportazioa.
03	Erabilitako ondasunen, arte objektuen, zaharkinen eta bilduma objektuen araudi berezia aplikatzen zaien eragiketak.
04	Inbertsio urrearen erregimen berezia.
05	Bidaia agentzien erregimen berezia.
06	BEZeko entitateen multzoaren erregimen berezia (maila aurreratua).
07	Kutxa irizpidearen erregimen berezia.
08	Ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari edo kanarietako zeharkako zerga orokorrari lotutako eragiketak.
09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidai agentziek egindako zerbitzuen fakturazioa (Fakturazio Erregelamenduko 3. xedapen gehigarria).
10	Hirugarrenen kontura kobratzea ordainsari profesionalak edo jabetza industrialetik eratorritako eskubideak, egilearenak edo bazkideen, elkartekideen edo elkargokideen kontura kobratzeko eginkizun horiek betetzen dituzten sozietate, elkarte, elkargo profesional edo bestelako entitateek egindakoak.
11	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak.
12	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak.
13	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu gabeak.
14	Hartzailea administrazio publiko bat denean ordaintzeke dauden BEZdun fakturak, obra Ziurtagirietakoak.
15	Segidako traktuko eragiketetan ordaintzeke dagoen BEZdun faktura.
17¹¹	IX. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako araubideetako batera (OSS edo IOSS) bildutako eragiketa.

¹¹ Eremu hau ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 2. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko



19¹²	Nezakaritzza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian (NAAAB) dauden jardueren eragiketak.
51	Baliokidetasun errekguko eragiketak.
52	Erregimen sinplifikatuko eragiketak.
53	BEZaren ondorioetarako enpresari edo profesionaltzat jotzen ez diren pertsona edo entitateek egindako eragiketak.
54¹³	Kanarietan, Ceutan eta Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak.

L10 → Zergari lotuta eta salbuetsita dauden eragiketak salbuesteko arrazoia.

Balioak	Deskribapena
E1	Salbuetsita dago, BEZaren Legearen 20. artikularen arabera.
E2	Salbuetsita dago, BEZaren Legearen 21. artikularen arabera.
E3	Salbuetsita dago, BEZaren Legearen 22. artikularen arabera.
E4	Salbuetsita dago BEZaren Legearen 23. eta 24. artikuluen arabera.
E5	Salbuetsita dago BEZaren Legearen 25. artikularen arabera.
E6	Salbuetsita beste arrazoi batengatik.

L11 → Salbuetsi gabeko eragiketaren mota.

Balioak	Deskribapena
S1	Subjektu pasiboaren inbertsiorik gabe.
S2	Subjektu pasiboaren inbertsioarekin.

L12 → Eragiketa baliokidetasun errekguan edo erregimen sinplifikatuan.

Balioak	Deskribapena
S	Bai.
N	Ez.

zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Aipatutako foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2022/06/17ko GAO).

¹² Eremu hau ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 2. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Aipatutako foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2022/06/17ko GAO).

¹³ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren artikuluko bakarreko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Aginduak (bi foru agindu hauek aldatzen dituenak: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituenak) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuz.



L13 → Zergari ez lotzeko arrazoa.

Balioak	Deskribapena
OT	BEZaren Legearen 7. artikulua onduz lotu gabea. Zergari ez lotzeko beste kasu batzuk.
RL	Lokalizazio arauen onduz lotu gabea.
VT¹⁴	Lotu gabea, hirugarrenen kontura egindako salmentak (zenbatekoa ez da konputagarria BEZaren eta PFEZaren onduioetarako).
IE¹⁵	Zergaren aplikazio lurraldean lotu gabea, lokalizazio erregelengatik, baina EBko beste estatu batean atzerriko zerga, PZIZ/KZO edo BEZa jasanaraziz.

¹⁴ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Agindua artikulua bakarreko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru agindua abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Agindua (bi foru agindu hauek aldatzen dituen: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarilaren 1ean indarrean sartuz.

¹⁵ Eremu hau abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Agindua artikulua bakarreko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru agindua abenduaren 23ko 521/2022 Foru Agindua aldatzen du, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen zen indarrean (2023/08/21eko GAO). Hala eta guztiz ere, urriaren 4ko 415/2023 Foru Agindua (bi foru agindu hauek aldatzen dituen: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen) (2023/10/13ko GAO), aldatu egiten du 2023ko urriaren 15eko indarrean sartze data, 2024ko urtarilaren 1ean indarrean sartuz.

II. eranskina: TICKETBAI ERAGIKETAK BALIOGABETZEKO FITXATEGIAREN EGITURA ETA BALIOZKOTZEAK.

I. BALIOGABETZE MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

Azalpena:	Gorritz =	Nahitaezko eremuak
	Beltzez =	Aukerako eremuak
		Eremu baztertzailak
		Derrigorrezkoa Gipuzkoan

Blokea	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Datuak / Multzoa	Formatua	Deskribapena	Balio posibleak
TBAIgoiburua	TBAI bertsioaren identifikatzailea								Alfanumerikoa(5)	Erabilitako TicketBAI egitura fitxategiaren bertsio identifikatzea.	L0
Fakturaren identifikatzailea	Jaukitzailea	IFZ							IFZen formatua(9)	Jaukitzailearen IFZ.	
		Abizenak eta izena edo sozietate izena							Alfanumerikoa(120)	Jaukitzailearen izen-abizenak, edo sozietate izena edo izendapen sozial osoa.	
	Fakturaren goiburua	Faktura seriea							Alfanumerikoa(20)	Baliogabetutako fakturaren seriea.	
		Faktura zenbakia							Alfanumerikoa(20)	Baliogabetutako fakturaren zenbakia.	
		Fakturaren jaulkipen data							Data formatua (10)	Baliogabetutako faktura egin den data.	(ee-hh-uuuu)
TBAI aztarna	TicketBAI softwarea	TBAI lizentzia (inskrizioaren alta zenbakia)							Alfanumerikoa(20)	Zerga Administrazioak TicketBAI softwarearen erregistroan esleitutako alta inskripzioaren zenbakia.	
		Pertsona edo entitate garatzailea	IFZ						IFZren formatua(9)	Pertsona edo entitate garatzailearen IFZ. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	
			Bestelako identifikazioa	Herrialdearen kodea					Alfanumerikoa(2)	Pertsona edo entitate garatzaileari lotutako herrialdearen kodea. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	(ISO 3166-1 alpha-2 codes) L1
				Identifikazio mota					Alfanumerikoa(2)	Bizi den herrialdeko identifikazio mota ezartzeko gakoa. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	L2
				Identifikazioa					Alfanumerikoa(20)	Bizi den herrialdeko identifikazio zenbakia. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	
				Izena					Alfanumerikoa(120)	TicketBAI softwarearen izena. TicketBAI softwarearen erregistroko inskripzioari lotutako datua.	
				Bertsioa					Alfanumerikoa(20)	Erabilitako TicketBAI softwarearen bertsioaren identifikazioa.	
		Gailuaren serie zenbakia							Alfanumerikoa(30)	Erabilitako fakturazio gailuaren serie zenbakia.	
Signature										Ikusi "TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoa egiteko zehaztapenak" III. eranskinean.	

II. ZERREDA MOTAKO EREMUETAN BAIMENDUTAKO GAKO ETA BALIOAK.

L0 → TBAI bertsioaren identifikatzailea.

Balioak	Deskribapena
1.2	Erabilitako eskemaren egungo bertsioa.

L1 → Herrialdearen kodea.

Informazioa indarrean dagoen herrialde eta lurraldeen kode zerrendaren arabera emango da.

L2 → Bizilekuko herrialdeko identifikazio motak.

Balioak	Deskribapena
02	IFZ-BEZ.
03	Pasaportea.
04	Bizi den herrialdeak edo lurraldeak emandako identifikazio agiri ofiziala.
05	Bizileku ziurtagiria.
06	Beste froga dokumentu bat.

III. ERANSKINA¹

TICKETBAI SOFTWAREAREKIN EGINDAKO ERAGIKETAREN ALTA- ETA BALIOGABETZE- FITXATEGIEN SINADURA ELEKTRONIKOAREN ZEHAZTAPENAK

1. Xedea.

Dokumentu honek ezartzen ditu TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren alta- eta baliogabetze-fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak (aurrerantzean, sinatzeko zehaztapenak) TicketBAI betebeharra erregulatzen duen araudiak aipatzen duena.

Sinadura elektronikoaren zehaztapenak identifikatzaile bakar batekin identifikatuko dira: <https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai/sinadura>.

Identifikazio hori nahitaez sartu beharko da TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren alta- eta baliogabetze-fitxategien sinadura elektronikoan, eta dagokion identifikazio-eremua erabiliko da espezifikazioen esparru orokorra zehazteko, bai eta hura baliozkotzeko aplikatu beharreko baldintza orokor eta espezifikoak dituen bertsioa ere.

2. Irismena.

2. 1. Jarduleak.

Sinadura elektronikoa sortzeko eta baliozkotzeko prozesuko jarduleak honako hauek dira:

- Sinatzailea: nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoa edo juridikoa, sinadura sortzeko gailu bat duena eta TicketBAI softwarearekin alta emateko edo eragiketa baliogabetzeko fitxategi bat sinatzen duena.
- Egiaztatzailea: sinadura elektroniko bat baliozkotzen edo egiaztatzen duen erakundea, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, sinadura zehatzaren zehaztapen batzuek eskatzen dituzten baldintzetan oinarrituta.
- Konfiantzazko zerbitzuen emailea: ziurtagiri elektronikoak ematen dituen edo sinadura elektronikoarekin lotutako beste zerbitzu batzuk ematen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.
- Sinadura-zehaztapenen igorlea: dokumentu hau sortzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den erakundea; horren bidez, sinatzaileak eta egiaztatzaileak hori bete dute sinadura elektronikoa sortzeko eta baliozkotzeko prozesuetan.

2. 2. Sinadura elektronikorako onartutako formatua

TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren altako eta baliogabetzeko fitxategien sinadura elektronikorako onartutako formatua FormatoXAdes (XML AdvancedElectronicSignatures) da, ETSI en 319 132-1 V1.1.1, ETSI TS 103 171 V2.1.1 eta ETSI TS 101 903 V1.4.2 zehaztapen teknikoen arabera. Estandarraren ondorengo

¹ Eranskin hau urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduen azken xedapenetako lehenaren bi apartauak aldatu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen ditu. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2022/01/24ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

bertsioetarako, sintaxiaren aldaketak aztertuko dira, eta profila estandarren bertsio berrira egokitzea onartuko da, eranskin hau aldatuz.

Sinaduraren zehaztapen horietan, ds: eta xades: aurrizkiak erabiliko dira XMLDSig eta XAdES estandarretan definitutako elementuei erreferentzia egiteko, hurrenez hurren.

XAdES formatuan hainbat mota daude; sinadura oinarritzko mota sortzeko prestatu behar da gutxienez, sinadura-zehaztapenei buruzko informazioa gehituz (EPES mota).

2. 3. Sinadura elektronikoa sortzea.

Sinadura elektronikoa sortzeko dagoeneko badauden liburutegi kriptografikoak edo produktuak erabiltzea komeni da.

Ez da beharrezkoa sinaduran TSA zerbitzu batek emandako denbora-zigilua txertatzea sinatzen den unean.

2. 4. Sinadura elektronikoa egiaztatzea

Egiaztatzaileak edozein metodo estandarizatu erabil dezake eranskin honen arabera sortutako sinadura egiaztatzeko. Sinadura bat baliozkotzeko honako baldintza hauek bete behar dira gutxienez:

1. Sinaduraren osotasunaren baliozkotasuna bermatu behar da.
2. Sinadura egiten denean ziurtagiriak baliozkoak izan behar dira.
3. Sinatzaile-ziurtagiria gordailu publiko batean baliagarri dagoen ziurtapen-praktiken deklarazio jakin baten arabera egin behar da.
4. Ziurtagiri sinatzailearen jaulkitzaileak konfiantza- zerbitzu kualifikatuen emaleen zerrendan egon beharko du (QTSP). Zerrenda hori hemen dago eskuragarri: <https://webgate.ec.europa.eu/tl-browser/#/>

2. 5. Sinatzeko zehaztapenak kudeatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio sinatzeko zehaztapenak mantentzea, eguneratzea, argitaratzea eta zabaltzea.

Zehaztapen horien eguneratzeak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta esteka honetan argitaratuko dira: <https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai/sinadura>

3. Sinadura elektronikoa baliozkotzea.

Atal honetan, sinadura elektronikoa sortzeko prozesuan sinatzaileak eta sinadura elektronikoa baliozkotzeko prozesuan egiaztatzaileak kontuan hartu beharko dituzten baldintzak zehazten dira.

3. 1. Indarraldia.

Sinadura-zehaztapen horiek baliozkoak dira argitaratzen direnetik bertsio eguneratu berri bat argitaratzen den arte, eta aldi baterako epe bat eman daiteke, bi bertsioak elkarrekin bizi izan daitezten, tartean dauden eragileen plataformak bertsio berriaren zehaztapenetara egokitu ahal izateko. Bertsio berrian aldi horren iraupena zehaztu beharko da; amaitutakoan bertsio eguneratua baino ez da izango baliozkoa.

3. 2. Arau komunak.

Sinadura elektronikoa, sinatzailean eta egiaztatzailean parte hartzen duten eragileentzako arau komunak nahitaezko eremua dira, eta sinaduraren zehaztapen guztietan agertu behar dute. Arau horiei esker, sinadura elektronikoa sortzen duen

pertsona edo erakundearen eta sinadura hori egiaztatzen duen pertsona edo erakundearen gaineko erantzukizunak ezar daitezke, aurkeztu beharreko gutxieneko baldintzak zehaztuta, betiere izenpetuta sinatzailearentzako baldintzak badira, edo ez izenpetuta, egiaztatzailearentzako baldintzak badira.

3. 3. Sinatzaileak bete beharreko arauak.

Sinatzaileak bere gain hartuko du sinatu beharreko fitxategian sinaduraren emaitza denboran zehar alda dezakeen eduki dinamikorik ez egotearen ardura. Sinatu beharreko fitxategia sinatzaileak sortu ez badu, pertsona horrek ziurtatu beharko du fitxategiaren barruan ez dagoela eduki dinamikorik (makroak, adibidez).

XAdES formatua: XAdESenveloped sinadurak bakarrik onartuko dira. XAdESenveloping eta XAdESdetached sinadurak ez dira onartuko.

Sinatzaileak, gutxienez, SignedProperties eremuko etiketa hauetan jasotako informazioa eman beharko du (eremu horretan, XMLDsig sinadura sortzeko orduan batera sinatutako propietate batzuk daude); horiek nahitaezkoak dira:

- SigningTime: sinatzaileak sinadura-prozesua noiz egin zuen zehazten du.
- SigningCertificateV2 edo SigningCertificate²: ziurtagiri bakoitzean erabilitako segurtasun- algoritmoen eta ziurtagirien erreferentziak jasotzen ditu. Elementu hori sinatu egin beharko da, ziurtagiria ordeztuko aukerarik egon ez dadin.
- SignaturePolicyIdentifier: sinadura elektronikoa sortzeko prozesuaren oinarri diren sinadura- zehaztapenak identifikatzen ditu, eta honako eduki hauek izan behar ditu azpibanatzen den elementuetan:
 - a) Sinadura-zehaztapenen dokumentu honen erreferentzia esplizitua, xades elementuan: SigPolicyId. Horretarako, sinaduraren zehaztapenen bertsio zehatza identifikatzen duen OIDA edo haren kokapenaren URLa agertuko da.
 - b) Dagokion sinadura-zehaztapenen dokumentuaren azterna digitala eta erabilitako algoritmoa, <xades: SigPolicyHash> elementuan; horrela, egiaztatzaileak egiaztatu ahal izango du, balio hori kalkulatu, sinadura hura baliozkotzeko erabiliko diren sinadura-zehaztapenen arabera sortu dela.

SignedProperties eremuan ezar daitezkeen gainerako eremuak aukerakoak dira:

- SignatureProductionPlaceV2 edo SignatureProductionPlace³: dokumentua sinatu den leku geografikoa definitzen du.
- SignerRoleV2 edo SignerRole⁴: pertsonak sinadura elektronikoan duen rola definitzen du. Erabiltzen bada, balio hauetako bat eduki beharko du ClaimedRoles eremuan:
 - a) "Supplier" edo "igorlea": jaulkitzaileak sinatzen duenean.
 - b) "customer" edo "hartzailea": sinadura hartzaileak egiten duenean.
 - c) "Thirdparty" edo "hirugarrena": jaulkitzailea edo hartzailea ez den beste pertsona edo erakunde batek sinatzen duenean.

² SigningCertificateV2 - ETSI EN 319132 , SigningCertificate - ETSI TS 101 903, ETSI TS 103 171

³ SignatureProductionPlaceV2 - ETSI EN 319 132 , SignatureProductionPlace - ETSI TS 101 903, ETSI TS 103 171

⁴ SignerRoleV2 - ETSI EN 319 132 , SignerRole - ETSI TS 101 903, ETSI TS 103 171

- `CommitmentTypeIndication`: sinatzailearen ekintza definitzen du sinatutako dokumentuaren gainean (onartu, informatu, jaso, ziurtatu...).
- `AllDataObjectsTimeStamp`: denbora-zigilu bat du, sinadura sortu aurretik kalkulatua, `ds:Reference`-n dauden elementu guztien gainean.
- `IndividualDataObjectsTimeStamp`: denbora-zigilu bat du, sinadura sortu aurretik kalkulatua, `ds:Reference` delakoetan dauden elementu batzuen gainean.

`CounterSignature` etiketa, sinadura elektronikoaren berrespena, `UnsignedProperties` eremuan sar daitekeena, aukerakoa da. Hurrengo sinadurak, seriean edo paraleloan, XAdES estandarraren arabera gehituko dira (EN 319 102-1 dokumentua).

3. 4. Egiaztatzailearen arauak.

Sinadura elektroniko aurreratuaren oinarritzko formatuan ez dago baliozkotze-informaziorik, ziurtagiri sinatzaileaz gain. Egiaztatzaileak ezaugarri hauek erabili ahal izango ditu sinadura sortzeko erabili diren sinadura-zehaztapenen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko:

- `Signing Time`: sinadura elektronikoak egiaztatzeko, adierazitako datan ziurtagiriaren egoera egiaztatzeko adierazpen gisa baino ez da erabiliko; izan ere, denbora-erreferentziak denbora-zigilu baten bidez baino ezin dira ziurtatu (batez ere bezergailuetako sinaduren kasuan).
- `SigningCertificatev2` edo `SigningCertificate`: `SigningCertificatev2` edo `SigningCertificate`: ziurtagiriaren (eta, hala badagokio, ziurtapen- katearen) egoera egiaztatzeko eta egiaztatzeko erabiliko da, sinadura sortzen den egunean, baldin eta ziurtagiria iraungi ez bada eta egiaztapen-datuak (CRL, OCSP) eskuratu badaitezke edo PSCK ziurtagiriaren egoera historikoki baliozkotzeko zerbitzu bat eskaintzen badu.
- `SignaturePolicyIdentifier`: egiaztatu beharko da sinadura sortzeko erabili diren sinadura- zehaztapenak bat datozela zerbitzu horretarako erabili behar denarekin.

Badago itxarote-aldi bat (zuhertasun-aldia edo graziazko aldia esaten zaiona), ziurtagiria ezeztatu denez egiaztatzeko erabil daitekeena. Egiaztatzaileak denbora hori itxaron dezake sinadura baliozkotzeko edo une berean egin eta gero berriro baliozkotzeko. Izan ere, baliteke atzerapen txiki bat egotea sinatzaileak ziurtagiri bat baliogabetzen duenetik ziurtagiriaren baliogabetze-egoerari buruzko informazioa dagozkion informazio-puntueta banatzen den arte. Gomendatzen da aldiaren iraupena, sinadura egiten denetik, CRLak erabat freskatu arte gehienez igaro daitekeen denbora izatea, gutxienez, edo OCSP zerbitzuan ziurtagiriaren egoera eguneratzeko behar den denbora, bestela. Aldi horiek ziurtapen-zerbitzua egiten duenaren arabera izaten dira.

3. 5. Algoritmoak erabiltzeko arauak.

ETSI TS 119 312 V1.3.1 zehaztapenean onartzen diren RSA sisteman oinarritutako algoritmo guztiak erabil daitezke. Gutxieneko ezaugarriak:

- Gakoaren tamaina 1024tik gorakoa izan behar da.
- SHA256 edo bertsio berriagoa.

4. TicketBAI softwarearen arkitekturatik eratorritako betekizunak

4. 1. Onartzen diren ziurtagiriak.

TicketBAI softwareak honako ziurtagiri hauetakoren bat erabili beharko du TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren alta- eta baliogabetze- fitxategiak elektronikoki sinatzeko:

- Gailuaren ziurtagiria, fakturazio-gailu bakoitzerako identitate bakarra ematen duena, instalatuta eta fakturak jaulkitzen diren gailuari lotuta.
- Pertsona fisikoaren edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasuna egiaztatzeko aukera ematen duena, hurrenez hurren.
- Enpresa-zigilua. Ziurtagiri teknikoa da, eta TicketBAI software batek edo sail edo lantalde bateko pertsona- talde batek erabil dezake. Ziurtagiri hau enpresek lanerako erabili ohi duten kautxuzko zigiluaren antzekoa da.
- Autonomoaren ziurtagiria: kualifikatu gabeko ziurtagiria, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren arabera ekonomia- jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoentzat igortzen dena. Ziurtagiriaren igorpenerako pertsona fisikoak baldintza hori akreditatu beharko du.

4. 2. Sinaduraren murrizketak arkitekturaren arabera.

4. 2. 1. Bezero-sinaduradun arkitekturak.

Bezeraoan sinadura duen arkitekturatzat hartzen da sinadura egiten duen TicketBAI softwarea fakturazio- gailuan bertan dagoenean, bertara sartzen denetik. Esaterako, aplikazioa idazmahaietan.

Sinatzeko urruneko beste gailu batean sartu behar bada, arkitektura zerbitzari-sinaduraduna da.

Honelako arkitekturetan ziurtagiriek ez dute murrizketarik. Hauek erabil daitezke sinatzeko: gailuaren ziurtagiria, pertsona fisikoaren ziurtagiria, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, enpresa- zigilua edo autonomoaren ziurtagiria.

4. 2. 2. Zerbitzari-sinaduradun arkitekturak.

Zerbitzari-sinadura duen arkitekturatzat hartzen da sinadura egiten duen TicketBAI softwarea bertara sartzeko erabiltzen den fakturazio-gailuaz bestelako gailu batean kokatuta dagoenean. Beraz, bezeroa fakturatzeko gailua urrunetik sartzen da beste gailu batera sinadura egiteko.

Gainera, fakturak egiteko prozesua inoren ikuskapenik gabe egiten bada (batch), arkitektura zerbitzari-sinaduraduna da.

Hauek erabil daitezke sinatzeko: pertsona fisikoaren ziurtagiria, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, enpresa-zigilua, autonomoaren ziurtagiria edo gailuaren ziurtagiria.

Hirugarrenei edo hartzaileei fakturazioa egiten dieten enpresen kasuan ezin izango da zerbitzariko gailuaren ziurtagiria erabili.

4. 2. 3. Bezero-sinadura eta zerbitzari-sinadura erabil daitezkeen arkitekturak.

Arkitektura banatuetan sinadura bezeraoan zein zerbitzarian egin daiteke, kasuan kasuko murrizketak kontuan edukiz.

Esaterako, web aplikazioetan:

- Aplikaziora sartzeko nabigatzaileak instalatuta duen gailuan egingo litzateke sinadura bezeraoan, eta sinadura duten arkitekturen murrizketak aplikatuko lirateke.

– Zerbitzariko sinadura nabigatzailea sartzen den urrutiko zerbitzarian egingo litzateke, eta kasu horretan zerbitzariko sinadura duten arkitekturen murrizketak aplikatuko lirateke.

Arkitektura batek ezin du eman aukera aldi berean bezero-sinadurak eta zerbitzari-sinadurak egiteko. Baliagarri dauden arkitekturetako bat hautatu behar da.

5. Elkarrekikotasun-klausula.

Elkarrekikotasun gisa, eranskin honetan jasotako sinadura elektronikoko zehaztapenak betetzat joko dira zergadunek Arabako Foru Aldundiak edo Bizkaiako Foru Aldundiak ondorio horietarako ezarritako zehaztapenak betetzen dituztenean.

IV. ERANSKINA¹

TICKETBAI FITXATEGIAK BILDATZEKO BEHARKIZUNAK ETA ZEHAZTAPEN TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK

1. Xedea.

Eranskin honetan ezartzen da zer beharkizun tekniko bete behar dituzten TicketBAI fitxategiek Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako fitxategiak jasotzeko duen zerbitzuak TicketBAI fitxategiak jaso ditzan.

REST zerbitzuak erabiliko dira, informazioa denbora errealean ematea ahalbidetzeko.

2. Funtzionamendu eskema orokorra.

2.1. Mezuak bidaltzea.

TicketBAI fitxategiak telematikoki bidaliko dira, zehazki, XML mezuen trukean oinarritutako REST zerbitzuen bitartez. Mezu guztiei modu sinkronoan erantzuten zaie.

Bi mezu mota definituko dira: Bata TicketBAI altako fitxategiak bidaltzeko, eta beste bat TicketBAI balio gabetze fitxategiak bidaltzeko.

2.2. Balioztapenak.

TicketBAI fitxategiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan une bakoitzean argitaratzen diren balioztapen guztiak gainditu beharko dituzte. Balioztapenekin batera, argitara emango dira, halaber, horietako bakoitzari dagozkion errorearen tipifikazioa, errore horiekin lotutako kodeak eta deskribapenak, eta fitxategiak jasotzearekin lotutako gainerako abisuak.

Balioztapenak harrerakoak zein kontsolidaziokoak izan daitezke, eta modu sinkronoan edo asinkronoan egin ahal izango dira.

2.2.1. Harrerako balioztapenak.

TicketBAI fitxategiak harrerako balioztapenetakoren bat gainditzeko ez duenean, erantzunean «**01 Errefusatuta**» adieraziko da, eta zer errore mota antzeman den informatuko da. Kasu hauek gerta daitezke:

- a) TicketBAI fitxategiak bidaltzeko eta/edo jasotzeko prozesuarekin lotutako erroreak. Halakorik dagoenean, berriro bidali beharko dira fitxategiak, behin erroreak zuzendu ondoren.
- b) TicketBAI fitxategien egiturarekin edo gutxieneko edukiekin lotutako erroreak. Kasu honetan, TicketBAI fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa bidaltzeko, aintzat hartuko dira TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduan ezarritako prozedura eta beharkizun teknikoak.

Errefusatutako TicketBAI fitxategiak ez dira erregistratuko Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

2.2.2. Kontsolidazioko balioztapenak.

TicketBAI fitxategiak harrerako balioztapenak gainditzeko dituenean, «**00 Jasota**» adieraziko da erantzunean. Orobat, kontsolidazioko balioztapenak ere egin ahal izango dira modu sinkronoan, eta horiek gainditzeko ez badira, horren berri emango da erantzun mezuan, eta zer errore mota

¹ 4. apartatuko 4.1.1 eta 4.2.1 azpiapartatuak abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduko artikuluko bakarraren sei eta zazpi apartatuak, hurrenez hurren, aldatu dituzte. Aipatutako foru aginduak TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua aldatzen du. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen da indarrean (2023/08/21eko GAO) baina aldaketek 2023ko irailaren 12tik aurreko ondorioak dituzte.

antzeraman den ere adieraziko da.

Ondorengo prozesu batean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoak kontsolidazio baliotapen gehiago egin ahal izango ditu jasotako informazioari buruz, modu asinkronoan. Baliotapen gehigarri horietan erroreak antzeramenez gero, zergadunei jakinaraziko zaie beste bitarteko batzuk erabilia.

Nolanahi ere, kontsolidazio erroreak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan kontsultatu ahal izango dira beti.

Atzermandako erroreen ondorioz, egoera hauek gerta daitezke:

A) Otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduaren 15. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako arazoietako batekin zerikusia duten erroreak, faktura zuzentzailea egitea exijitzen dutenak. Kasu horretan, beharrezkoa izango da TicketBAI altako fitxategia sortzea (faktura zuzentzaileari dagokiona) eta fitxategi hori TicketBAI altako fitxategiak jasotzeko zerbitzura bidaltzea.

b) Erroreek ez exijitzea faktura zuzentzaileari egitea, baina TicketBAI altako fitxategian informatu behar diren gainerako datuen ondorioz gertatzea errore horiek. Kasu honetan, TicketBAI fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa bidaltzeko, aintzat hartuko dira TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarrikak 18ko 16/2022 Foru Aginduan ezarritako prozedura eta beharkizun teknikoak.

Erroreak dituzten fitxategiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan erregistratuko dira, baina ez dira kontuan hartuko zerga ondorioetarako.

2.3. Erantzun mezuak.

Erantzunaren XML fitxategian informazio hau ere jarriko da: TicketBAI Kodea, TicketBAI fitxategia jaso den ordua, eta Egiaztapen Kode Seguru bat. Erantzunean TicketBAI Koderik ez agertzeak esan nahi du ezinezkoa izan dela zehaztea zein den TicketBAI fitxategian jasotako informazioaren TicketBAI Kodea.

3. Estandarrak eta beharkizunak.

3.1 Sarrera.

Mezuaren edukia XML fitxategi bat da. XML fitxategiak egitura desberdinetan deskribatzen diren erregelak bete behar ditu. Horietan honako hauei buruzko arauak ematen dira: formatua, derrigortasuna, elementuen hurrenkera, gehieneko eta gutxieneko agerraldi kopurua, gehieneko luzera, eta sartu beharreko balioen eduki posiblea. Edozein kasutan, datuak prestatu eta aurkezten dutenek datuen koherentzia bermatu behar dute jatorrian.

Egitura bakoitza datu multzotan antolatzen da, eta multzo horietan datuen elementuak daude. Elementu horiek bloke logikoak osatuz taldekatu dira, egitura bakoitzaren eremuarekin koherentzia izan dezaten.

REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TicketBAI softwareak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duen ziurtagiri elektroniko aitortu bat eduki behar da. Ziurtagiri hori pertsona fisikoarena, entitatearen ordezkariarena, gailuarena, zigilu elektronikoarena, autonomoarena edo baimendu daitekeen beste edozeinena izan daiteke.

Zergadun baten TicketBAI fitxategia haren ziurtagiriaren bidez bidali daiteke, baina baita hauetako edozein erabiliz ere:

- Behar bezala baimendutako lege edo zerga ordezkariaren ziurtagiria.
- Kolaboratzaile sozialaren ziurtagiria.
- Gailuaren ziurtagiria.

Gailuaren ziurtagiriaren kasuan, bidalketak egin ondoren, zergadunak hilabeteko epea izango du gailuak bere izenean mezuak bidaltzea baimentzeko. Baimen hori emanez gero, ordura arte egindako bidalketak berretsita geratuko dira. Epea zenbatzen hasiko da aipatutako gailutik bidaltzen den lehen TicketBAI fitxategia jasotzen denetik aurrera. Baimen hori emateko, zerbitzu bat gaituko da egoitza elektronikoan.

Kolaboratzaile sozialen kasuan, bete beharrekoa izango da abenduaren 23ko 523/2020 Foru Aginduan xedatutakoa, bertan ezarrita baitaude TicketBAI obligazioa betetzearen ondorioz sortutako TicketBAI fitxategiak bidaltzeko gizarte lankidetzak bete behar dituen baldintzak.

Fitxategia bidaltzeko erabiltzen den ziurtagiria eta bidalketaren xede den TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatzeko erabilitakoa desberdinak izan daitezke.

3.2 Erabilitako estandarrak.

RESTful web zerbitzuak webean APIak edo programazio interfazeak azaltzeko diseinatuta daude. Helburua da errendimendua, eskalabilitatea eta malgutasuna ohiko web zerbitzuek ematen dutena baino handiagoa izatea, bezeroek aukera izan dezaten datu eta baliabideak URL aurreikusgarrien bidez eskuratzeko. Izan ere, informazio sistemak (herritar/enpresarena eta Foru Ogasunarena) era horretan komunikatuko dira elkarrekin. RESFful zerbitzuak garatzeko, de facto estandarrak erabiliko dira.

TicketBAI fitxategien egitura XML eskemetan oinarritzen da, eta 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa erabiltzen da (lotura: <http://www.w3.org/TR/xmlschema-0>). Izen eremu hau du erreferentzia: <http://www.w3.org/2001/XMLSchema>.

Zerbitzu bakoitzak sarrera mezu bat eta irteera erantzun bat izango ditu definituta bakoitzari dagokion XSD eskemaren bidez.

4. Zerbitzuen definizioa.

4.1 TicketBAI altako fitxategiak jasotzeko zerbitzua.

Zerbitzu honen bitartez posible da TicketBAI altako fitxategi bati sarrera ematea Gipuzkoako Foru Ogasunaren sisteman.

4.1.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.


Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.2 edo handiagoa).


Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Sarrera XML bat da, jarraian azaltzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitua.

Emaitza TicketBAI altako fitxategi bat da, foru agindu honen I. eranskinean deskribatutako formatua eta egitura dituen.





Eskatzen diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TicketBAI softwareak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duen ziurtagiri elektroniko aitortu bat eduki behar da.

Zerbitzuaren helbidea: <https://tbai-z.egoitza.gipuzkoa.eus/sarrerak/alta>


4.1.2. Erantzuna:

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Irteera XML bat da, UTF-8 kodearekin kodifikatua. XML-a jarraian azaltzen den XSD motako irteera eskemaren zehaztapenera egokitu behar da.



Sinadura: erantzun mezua ez doa sinatuta.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori arrakastaz aplikatu ondoren:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:31:34</FechaRecepcion>
    <Estado>00</Estado>
    <Descripcion>Recibido</Descripcion>
    <Azalpena>Jasota</Azalpena>
    <CSV>TBAI33076dde-180d-4484-88ff-094ba2e93587</CSV>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>
```

Egiaztapen kode seguruak jasota uzten du fitxategia Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu dela.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori aplikatu eta balioztapen erroreak eman ondoren:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:31:34</FechaRecepcion>
    <Estado>01</Estado>
    <Descripcion>Rechazado</Descripcion>
    <Azalpena>Baztertua</Azalpena>
    <ResultadosValidacion>
      <Codigo>002</Codigo>
      <Descripcion>El mensaje no cumple el esquema XSD</Descripcion>
      <Azalpena>Mezuak ez du XSDaren egitura betetzen</Azalpena >
    </ResultadosValidacion>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>
```

4.1.3. Emaizta kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan jasotako egoeraren kode globalak aukera hauek ditu:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasota	TicketBAI altako fitxategia jaso egin da.
01	Errefusatuta	TicketBAI altako fitxategiak jasotzea ekiditen duten erroreak ditu

4.2. TicketBAI baliogabetze fitxategiak jasotzeko zerbitzua.

Zerbitzu honen bitartez sarrera eman dakioke TicketBAI baliogabetze fitxategi bati.

4.2.1. Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.


Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.2 edo handiagoa)

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Sarrera XML bat da, jarraian azaltzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitua.

TicketBAI baliogabetze fitxategien egitura eta formatua foru agindu honen II. eranskinean zehazten dira.



Eskatzen diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: Web zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TicketBAI softwareak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Zerbitzuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duen ziurtagiri elektroniko aitortu bat edukitzea.

Zerbitzuaren helbidea:: <https://tbai-z.egoitza.gipuzkoa.eus/sarrerak/baja>


4.2.2. Erantzuna:

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Irteera XML bat da, UTF-8 kodearekin kodifikatua. XML-a jarraian azaltzen den XSD motako irteera eskemaren zehaztapenera egokitu behar da.



Sinadura: erantzun mezua ez doa sinatuta.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori arrakastaz aplikatu ondoren:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#">
```

```

xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:30:11</FechaRecepcion>
    <Estado>00</Estado>
    <Descripcion>Recibido</Descripcion>
    <Azalpena>Jasota</Azalpena>
    <CSV>TBAI33076dde-180d-4484-88ff-094ba2e93587</CSV>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>

```

Egiaztapen kode seguruak jasota uzten du fitxategia Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu dela.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori aplikatu eta balioztapen erroreak eman ondoren:

```

<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:25:52</FechaRecepcion>
    <Estado>01</Estado>
    <Descripcion>Rechazado</Descripcion>
    <Azalpena>Baztertua</Azalpena>
    <ResultadosValidacion>
      <Codigo>001</Codigo>
      <Descripcion>Certificado remitente incorrecto (revocado o no
homologado)</Descripcion>
      <Azalpena>Bidaltzailearen ziurtagiria okerra (errebokatua edo ez-
homologatua)</Azalpena>
    </ResultadosValidacion>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>

```

4.2.3. Emaidza kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan jasotako egoeraren kode globalak aukera hauek ditu:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasota	TicketBAI baliogabetze fitxategia jaso egin da.

01	Errefusatuta	TicketBAI baliogabetze fitxategiak jasotzea ekiditen duten erroreak ditu
----	--------------	--

5. BESTE OHAR BATZUK.

5.1. Erroreak eskaerak prozesatzean

HTTP eskaera prozesatzean erroreak gertatzen badira, HTTP protokolo estandarrean deskribatzen den eran komunikatu beharko dira.

Laburpen moduan, eskaera bati erantzutean kasu hauek gerta daitezke.

Eraitza bezeroaren aldetik	Ekintza
Erantzun bat jaso da, eta XML formatua du, espero bezala.	Eskaera prozesatuta. Erantzuna aztertu behar da, eragiketaren
Erantzun bat jaso da eta haren formatua ez da zuzena.	Errorea eskaeraren prozesuan. Eskaera errepikatu behar da.

5.2. Karaktere berezien “ihes” sekuentziei buruzko argipena.

Baldin eta XML elementu baten balio batean hurrengo karaktereetako bat jarri behar bada, haien orde “ihes” sekuentzia hauek erabiliko dira:

Karakterea	“Ihes” sekuentzia
&	&
<	<
>	>

V. ERANSKINA¹

TICKETBAI SOFTWAREAK SORTUTAKO FAKTUREN EDO EGIAZTAGIRIEN TICKETBAI KODEAREN ETA QR KODEAREN ZEHAZTAPENAK

Foru agindu honen 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, TicketBAI softwareak sortutako ondasunen entregean edo emandako zerbitzuen faktura edo egiaztagiriek TicketBAI kode bat eta QR kode bat izan beharko dute, zehaztapen hauen arabera sortuak:

- TicketBAI kodea edo identifikazio kodea, hots, zenbakiz, hizkiz eta beste karaktere batzuek osatutako kodea, TicketBAI sistemaren barnean faktura edo egiaztagiria identifikatzekoa. Hizki mota eta tamaina faktura edo egiaztagiriaren agertzen den gainerako edukiaren antzekoa izan beharko dira, faktura edo egiaztagiriaren hartzaileak irakur dezakeela ziurtatuz.
- QR kodea, hots, QR formatuko kode bat, 30x30 milimetrokoa edo handiagoa, eta 40x40 milimetrokoa edo txikiagoa.

1. TicketBAI kodearen zehaztapenak.

TicketBAI kodeak sortutako faktura edo egiaztagiria identifikatzen du TicketBAI softwarea erabiliz, eta dagokion TicketBAI alta fitxategiarekin bat datorrela ziurtatzen du.

TicketBAI kodeak 39 karaktereko luzera finkoa du.

TicketBAI hizki mota eta tamaina faktura edo egiaztagiriaren agertzen den gainerako edukiaren antzekoa izan beharko dira, hartzaileak irakur dezakeela ziurtatuz.

Hau da TicketBAI kodearen edukia:

- Testu finkoko 4 karaktere, hizki larritan: TBAI.
- Bereizgailu modura “-“ karaktere 1. Erdiko marra.
- Faktura edo egiaztagiria igortzen duen pertsona edo erakundearen IFZ zenbakiaren 9 karaktereak.

TicketBAI fitxategian barneratzen den IFZ zenbakiarekin bat etorri behar da, formatu ofizialaren arabera.

- Banagailu modura “-“ karaktere 1. Erdiko marra.
- Faktura edo egiaztagiriaren igorpen-dataren 6 karaktereak.

¹ Eranskin hau otsailaren 8ko 53/2021 Foru Aginduaren artikulua bakarrez bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2021/02/23ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak, betiere eragotzi gabe zer jasotzen duten iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duen azaroaren 6ko 3/2020 foru arauak xedapen gehigarri bakarrez eta ticketBai betebeharra garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 22ko 32/2020 foru Dekretuak lehen eta bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa.

TicketBAI sistemako alta fitxategian, "FakturarenIgorpenData" izeneko eremuan, UUUHHEE formatuan, barne bereizgailurik gabe, jasotzen den datarekin bat etorri beharko da. Azpi-eremu bakoitza ezkerretara zeroak ipiniz bete beharko da beharrezkoa izanez gero. Hala, dataren tamaina beti 6 zenbakikoa izango da edozein kasutan (esate baterako, 220101 2022ko urtarrilaren 1a izango litzateke).

UUHHEE formatua horrela osatzen da: EE: faktura edo egiaztagiria igorri den eguna; HH: faktura edo egiaztagiria igorri den hilabetea; eta UU: faktura edo egiaztagiriaren igorpen urtearen azken bi digituak. Esate baterako, 2002. Urterako, UU=22.

- Bereizgailu modura "-" karaktere 1. Erdiko marra.
- TicketBAI sistemako alta fitxategiaren sinadurako lehendabiziko 13 karaktereak, hau da, faktura edo egiaztagiriarekin lotutako TicketBAI sistemako alta fitxategiaren SignatureValue eremuko lehendabiziko 13 karaktereak.
- Bereizgailu modura "-" karaktere 1. Erdiko marra.
- Erroreak hautemateko kode bati dagozkion 3 karaktere, zeinaren helburua identifikatzailearen eduki zuzena bermatzea den:

Datu hori TicketBAI softwareak kalkulatu behar du eta aurrez zehaztutako karaktere kateari CRC-8 algoritmoa aplikatzearen emaitza izango da, hau da, algoritmo hori aurreko 36 karaktereei aplikatzearen ondoriozko emaitza izango da.

Algoritmoaren sarrera ordura arte UTF-8 kodetze batekin sortutako identifikazio-kodearen edukia izango da (identifikazio-kodearen lehendabiziko 36 karaktereak).

Algoritmoaren irteera formatu hamartarrean idatziko da eta, beharrezkoa izanez gero, ezkerretara zeroak ipinita osatuko dira TicketBAI kodearen azken 3 karaktereak.

Eranskin honetako 4. atalean zerga Administrazioak CRC kodea egiaztatzeko erabiliko den algoritmoa jasotzen da. Algoritmo hori argitaratzearen helburua fakturazioaren softwareak zerga Administrazioak eskuratuko dituen emaitzak berdinak eskuratzea ziurtatu ahal izatea da.

Jarraian TicketBAI kodearen osaera orokorra barneratzen da:

TBAI-NNNNNNNNN-UUHHEE-FFFFFFFFFFFFFFF-CRC

Jarraian, TicketBAI kodearen adibide zehatz bat jasotzen da. Bertan identifikazio fiskaleko zenbakia eta sinadura eremuetako edukia ez da baliozkoa eta soilik eskatzen den formatua agerian ipintzeko barneratzen dira:

TBAI-00000006Y-191025-btFpwP8dcLGAF-237

2. QR kodearen zehaztapenak.

TicketBAI kodeak bezalaxe, QR kodeak TicketBAI softwarea erabiliz sortutako faktura edo egiaztagiria identifikatzen du, eta dagokion TicketBAI alta fitxategiarekin bat datorrela ziurtatzen du.

QR kodea QR formatuko kode bat da, 30x30 milimetrokoa edo handiagoa, eta 40x40 milimetrokoa edo txikiagoa.

TicketBAI softwarearen zergadun erabiltzailea da bere ekonomia jarduera garatzen duen bitartean igorritako faktura edo egiaztagirietan jasotzen diren QR kodeak irakurgarriak izatearen arduraduna. QR kodea irakurgarri ez duen faktura edo egiaztagiri

bat ez da balizkotzat joko TicketBAI sistemako betebeharrari dagozkion betekizunen ikuspegitik.

QR kodearen erroreen zuzenketa maila M izango da. Kodea sortzeko erabilitako kodetzea UTF-8 izango da.

QR kodearen eta hondoaren arteko koloreen kontrastea irakurgarritasuna ziurtatzeko modukoa izan beharko da. Horri dagokionez, QR kodearen lau aldean inguruan 6 milimetro zuriune mantentzea gomendatzen da.

QR kodeak baliozko URL bat izan beharko du TicketBAI softwarearekin igorritako fakturak edo egiaztagiria egiaztatzeko web aplikazioan sartzeko, faktura edo egiaztagiriaren datuak parametro modura barneratuta. URL edo hartako parametroetan baliozkoak ez diren karaktereak baldin badaude, modu egokian "kodetu" beharko dira (URL encoding) web arkitekturaren erabilera arruntei jarraiki.

Hau izango da QR kodearen edukia:

- QR kodea irakurtzeko web aplikaziora sartzeko URL helbidea, hots: <https://tbai.egoitza.gipuzkoa.eus/qr/> ("/" amaieran ipinita CRC kalkulatzeko).
- Parametroak:

Gakoa	Balioa	Deskribapena
id	Identifikazio-kodea	Haren zehaztapenak eranskin honaetako 1. atalean jasotzen dira.
s	Faktura edo egiaztagiriaren seriea	Faktura edo egiaztagiriaren seriea, fakturazioaren araudiaren arabera. TicketBAI sistemako alta fitxategian jasotako seriearekin bat etorri behar da ("FakturaSerie" eremua).
nf	Faktura edo egiaztagiriaren zenbakia	Faktura edo egiaztagiriaren seriea, fakturazioaren araudiaren arabera. TicketBAI sistemako alta fitxategian jasotako faktura edo egiaztagiri zenbakiarekin bat etorri behar da ("FakturaZenb" eremua).
i	Faktura edo egiaztagiriaren zenbateko osoa	Faktura edo egiaztagiriaren zenbatekoa, BEZ barne. TicketBAI sistemako alta fitxategian jasotako zenbateko osoarekin bat etorri behar da ("FakturaZenbatekoOsoa" eremua), hala balioan nola formatuan.
cr	CRC-8. Erroreak hautemateko kodea, QR kodean nahigabeko alaketak hautemateko helburuarekin.	Datu hori TicketBAI softwareak kalkulatu behar du. URL kodearen azken parametro modura barneratuko da. QR kodearen edukiko karaktere kateari CRC-8 algoritmoa aplikatzearen ondoriozko emaitza izango da.

		Algoritmoaren sarrera ordura arte UTF-8 kodetze batekin sortutako identifikazio-kodearen edukia izango da. Horrenbestez, ez dira barneratuko ez cr parametroa bera ezta haren "&" ikur lotua ere, gainerako parametroetara gaineratzeko erabilia (query string). Algoritmoaren irteera formatu hamartarrean idatziko da URL kodearen parametro berri modura. Eranskin honetako 4. atalean zerga Administrazioak CRC kodea egiaztatzeko erabiliko den algoritmoa jasotzen da. Algoritmo hori argitaratzearen helburua TicketBAI softwareak zerga Administrazioak eskuratuko dituen emaitzak berdinak eskuratzea ziurtatu ahal izatea da.
--	--	--

Jarraian QR kodearen edukiaren adibide bat ematen da:

<https://tbai.egoitza.gipuzkoa.eus/qr/?id=TBAI-44619360G-261020-EzyQEMtxw37Gm-161&s=TB-2020-F&nf=419&i=1542.75&cr=182>

Jarraian QR kodearen adibide bat ematen da:



3. Faktura edo egiaztagiri barnean identifikazio-kodea eta QR kodea kokatzeari buruzko zehaztapenak.



Faktura edo egiaztagiri barnean TicketBAI kodea eta QR kodea haren orientazioaren arabera kokatuko da:

- Orientazio bertikal batean, faktura edo egiaztagiriko behean dagoen atalean kokatuko da. TicketBAI kodea lerro bakarrean barneratuko da eta azpian QR kodea.
- Orientazio horizontal batean, faktura edo egiaztagiriko eskuinean dagoen atalean kokatuko da. TicketBAI kodea lerri bakarrean barneratuko da eta azpian QR kodea.

TicketBAI kodea lerro bakar batean barneratu ezin baldin bada, elkarren segidako lerro ugari baimenduko dira. Lerro bakoitzeko azken karakterea, azken lerrokoa izan ezik, "-" bereizgailua izango da (erdiko marra).

Hurrengo irudiok kontuan izan behar dira soilik TicketBAI kodea eta QR kodea faktura edo egiaztagiri barruan kokatzeko adibide modura. Adibide hauetako edukia, tamaina eta proportzioak ez dira baliozkoak.

Orientazio horizontala.



Orientazio bertikala:



4. Egiaztapenerako CRC algoritmoa.

```
package net.ticketbai;  
  
import java.io.UnsupportedEncodingException;  
  
public class CRC8{
```

```

private static final String UTF_8 = "UTF-8";

// CRC-8,
// Poly = x^8 + x^2 + x^1 + x^0
// Init = 0
// RefIn = false
// RefOut = false
// XorOut = 0
private static final byte[] crc8_table =
    new byte[] {
        (byte) 0x00, (byte) 0x07, (byte) 0x0E, (byte) 0x09, (byte) 0x1C, (byte) 0x1B, (byte) 0x12, (byte) 0x15,
        (byte) 0x38, (byte) 0x3F, (byte) 0x36, (byte) 0x31, (byte) 0x24, (byte) 0x23, (byte) 0x2A, (byte) 0x2D,
        (byte) 0x70, (byte) 0x77, (byte) 0x7E, (byte) 0x79, (byte) 0x6C, (byte) 0x6B, (byte) 0x62, (byte) 0x65,
        (byte) 0x48, (byte) 0x4F, (byte) 0x46, (byte) 0x41, (byte) 0x54, (byte) 0x53, (byte) 0x5A, (byte) 0x5D,
        (byte) 0xE0, (byte) 0xE7, (byte) 0xEE, (byte) 0xE9, (byte) 0xFC, (byte) 0xFB, (byte) 0xF2, (byte) 0xF5,
        (byte) 0xD8, (byte) 0xDF, (byte) 0xD6, (byte) 0xD1, (byte) 0xC4, (byte) 0xC3, (byte) 0xCA, (byte) 0xCD,
        (byte) 0x90, (byte) 0x97, (byte) 0x9E, (byte) 0x99, (byte) 0x8C, (byte) 0x8B, (byte) 0x82, (byte) 0x85,
        (byte) 0xA8, (byte) 0xAF, (byte) 0xA6, (byte) 0xA1, (byte) 0xB4, (byte) 0xB3, (byte) 0xBA, (byte) 0xBD,
        (byte) 0xC7, (byte) 0xC0, (byte) 0xC9, (byte) 0xCE, (byte) 0xDB, (byte) 0xDC, (byte) 0xD5, (byte) 0xD2,
        (byte) 0xFF, (byte) 0xF8, (byte) 0xF1, (byte) 0xF6, (byte) 0xE3, (byte) 0xE4, (byte) 0xED, (byte) 0xEA,
        (byte) 0xB7, (byte) 0xB0, (byte) 0xB9, (byte) 0xBE, (byte) 0xAB, (byte) 0xAC, (byte) 0xA5, (byte) 0xA2,
        (byte) 0x8F, (byte) 0x88, (byte) 0x81, (byte) 0x86, (byte) 0x93, (byte) 0x94, (byte) 0x9D, (byte) 0x9A,
        (byte) 0x27, (byte) 0x20, (byte) 0x29, (byte) 0x2E, (byte) 0x3B, (byte) 0x3C, (byte) 0x35, (byte) 0x32,
        (byte) 0x1F, (byte) 0x18, (byte) 0x11, (byte) 0x16, (byte) 0x03, (byte) 0x04, (byte) 0x0D, (byte) 0x0A,
        (byte) 0x5F, (byte) 0x50, (byte) 0x59, (byte) 0x5E, (byte) 0x4B, (byte) 0x4C, (byte) 0x45, (byte) 0x42,
        (byte) 0x6F, (byte) 0x68, (byte) 0x61, (byte) 0x66, (byte) 0x73, (byte) 0x74, (byte) 0x7D, (byte) 0x7A,
        (byte) 0x89, (byte) 0x8E, (byte) 0x87, (byte) 0x80, (byte) 0x95, (byte) 0x92, (byte) 0x9B, (byte) 0x9C,
        (byte) 0xB1, (byte) 0xB6, (byte) 0xBF, (byte) 0xB8, (byte) 0xAD, (byte) 0xAA, (byte) 0xA3, (byte) 0xA4,
        (byte) 0xF9, (byte) 0xFE, (byte) 0xF7, (byte) 0xF0, (byte) 0xE5, (byte) 0xE2, (byte) 0xEB, (byte) 0xEC,
        (byte) 0xC1, (byte) 0xC6, (byte) 0xCF, (byte) 0xC8, (byte) 0xDD, (byte) 0xDA, (byte) 0xD3, (byte) 0xD4,
        (byte) 0x69, (byte) 0x6E, (byte) 0x67, (byte) 0x60, (byte) 0x75, (byte) 0x72, (byte) 0x7B, (byte) 0x7C,
        (byte) 0x51, (byte) 0x56, (byte) 0x5F, (byte) 0x58, (byte) 0x4D, (byte) 0x4A, (byte) 0x43, (byte) 0x44,
        (byte) 0x19, (byte) 0x1E, (byte) 0x17, (byte) 0x10, (byte) 0x05, (byte) 0x02, (byte) 0x0B, (byte) 0x0C,
        (byte) 0x21, (byte) 0x26, (byte) 0x2F, (byte) 0x28, (byte) 0x3D, (byte) 0x3A, (byte) 0x33, (byte) 0x34,
        (byte) 0x4E, (byte) 0x49, (byte) 0x40, (byte) 0x47, (byte) 0x52, (byte) 0x55, (byte) 0x5C, (byte) 0x5B,
        (byte) 0x76, (byte) 0x71, (byte) 0x78, (byte) 0x7F, (byte) 0x6A, (byte) 0x6D, (byte) 0x64, (byte) 0x63,
        (byte) 0x3E, (byte) 0x39, (byte) 0x30, (byte) 0x37, (byte) 0x22, (byte) 0x25, (byte) 0x2C, (byte) 0x2B,
        (byte) 0x06, (byte) 0x01, (byte) 0x08, (byte) 0x0F, (byte) 0x1A, (byte) 0x1D, (byte) 0x14, (byte) 0x13,
        (byte) 0xAE, (byte) 0xA9, (byte) 0xA0, (byte) 0xA7, (byte) 0xB2, (byte) 0xB5, (byte) 0xBC, (byte) 0xBB,
        (byte) 0x96, (byte) 0x91, (byte) 0x98, (byte) 0x9F, (byte) 0x8A, (byte) 0x8D, (byte) 0x84, (byte) 0x83,
        (byte) 0xDE, (byte) 0xD9, (byte) 0xD0, (byte) 0xD7, (byte) 0xC2, (byte) 0xC5, (byte) 0xCC, (byte) 0xCB,
        (byte) 0xE6, (byte) 0xE1, (byte) 0xE8, (byte) 0xEF, (byte) 0xFA, (byte) 0xFD, (byte) 0xF4, (byte) 0xF3 };

/**
 * Calculate the CRC value with data from input string.
 * @param input input string
 * @return The calculated CRC value. Left padding with zeros.
 * @throws UnsupportedOperationException
 */
public static String calculate(String input) throws UnsupportedOperationException {
    byte[] data = input.getBytes(UTF_8);
    int len = data.length;
    byte crc = 0;

    for (int i = 0; i < len; i++)
        crc = crc8_table[(crc ^ data[i]) & 0xff];

    return String.format("%03d", crc & 0xFFL);
}

```